

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 IRE. H. Fernandez / Astea 27 1988

22. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

50 pta.

1988 Ekaina



Mayi IZA AGIRRE, 17 urteko neska gaztea dugu Hondarrribian bertsozaletasunaren jarraitzaile suharrenetako bat. Tiiki-tiikitikik ezagutzen omen zuen bertso-mundua, urteekin batera haunditu egin zaio afizioa, eta hortxe dugu gazteen artean bertso-paper lehiaketetan parteide eta askotan irabazle. Joan den maiatzean irabazi du azkenekoa: Oiarzungo Manuel Lekuona Saria.

- Institutoko adinean ditugun neska-mutilen sormena, ordea, ez da hor bukatzen: ikasleen orrialdean eta kirolenetan ere aurkituko duzu horren froga nabaria zenbaki honetan.
- Lourdes Zubeldiak Antoniren izaera kementsu bezain zentzudun pintatzen digu Ezkioga eta abarreko garaletan zehar.

- Maritxu Beguiriren izena eta izana berriro aipatzen zaizkigu, baina honetan Martin Ugalderekin lumaz.

- Iztuetak euskal dantzak bildu zituela badaki askok, baina bandolero izan zela eta maitemindua gainera? Horretaz dihardu Juan Martinek.

- Pello Olazabalek Ama Guadalupekoan sortzen ari diren jokari internazionalen joan-etorriak kontatzen dizkigu.

- Animatua al zaude San Juan bezperarako? Bestela, Haizehotekek piztuko dizu baruko sua, antzerkia, musika eta dantza lagundurik.

Eta abar...

IKASTURTEKO AZKEN TXANPA

Irakaskuntzaren munduan dabiltenaztat esanahi berezia du ekainak. Bederatzi hilabeteko maratoni luzearen azkena bait da ekaina. Ikasle-irakasleak neke aurpegiz agertzen zaizkigu azken txanpako olatuaren gailurrean kurso bukaerako sindromeak jota eta gurasoak ere hor nonbait.

Aurtengo ikasturteari begira istilurik franko ez dela faltatu aitortu behar dugu. Kurso erdian irakaskuntza pribatuan, bukaeran publikoan, eta azken hau oraindik gal-gal dagoelarik ikastolen aldetik entzuten da trumoi hotsa.

Auzia ez da erraza. Erantzun azkarrak eskatzen zaizkio Administrazioari, baina Administrazioak ere ez du hauts miresgarriarik urte luzeetan antolatzen den makina konplexua gauek goizera birregokitzeko eta are gutxiago, interes kontrajarriak daudelarik, denon gustoko irtenbidea aurkitzeko.

Hondarribiko beharrak eta premiak aztertzerakoan, eta eskolaurtean daukagun 9 gela premia ahaztu gabe, bat ageri da nabarmen gehienon ustez: Irakaskuntza Ertaina osatu beharra. Batxilergoko Institutua aspaldira ireki zen Hondarrribian eta ehundaka dira bertan, hermetik aterata gabe, erdi mailako ikasketak burutu dituztenak. Bestalde, bi eskola pribatu elkarturik REM ikasketak eskaini dituzte aurreko lehenengo aldira. Hala ere, eta eskaintza hauek gorabehera, 320tik gora ikasle dira erdi mailako

ikasketak egitera heretik kanpo egunero joaten direnak. Gehien-gehienak Lanbide Heziketa, F.P. alegia, egitera. Inongo Administrazioan, Lasallen, Junkalen, Pasaiaiko Itsas Institutuan eta Martuteneko Lanbide Eskolan ari zaizkigu neska-mutil hauek. Udalak hauen garraioan 4.000.000 pezeta-tik gora gastatzen du urtean eta familietako katamilak ere ez dira txikiak gertatzen egunero kanpora joan behar honekin.

Arazo honi irtenbide bat bilatu nahian Udal ordezkaritza bat joan zen Hondarribitik Hezikuntza Delegazioara, Donostiara, maiatzaren 10ean. Elkarizketan Plangintzako arduradunak onartu zuen Lanbide Heziketako ikastetxe baten beharra Hondarribian, baina berehala konpontzeko oztopo nagusitzat lur faltarena aipatu zuen. Eragozpena, noski, Udalak lur sailen bat eskainiz gero asko erraztuko litzatekeela ere esan zuen. Dena den, eta gauzak bide onek joanik ere bost urte pasako lirakeke obra bukatu arte. Epe laburragoa behar litzateke, jakina, lehendik egina dagoen etxeren bat aprobetxatuz gero. Hondarribian badira lur eta leku batzuk horretarako erabili litezkeenak. Ea bada batzuen eta besteen borondate onak elkarturik soluzio egokirik aurkitzen den.

Irakaskuntza Ertainaren ahotsa entzunarazi nahian Institutoko ikasleak dakartzaguz zenbaki honetan idazle. Irakur.



Ez zen edozein Anttoni. Nahiz eskolara behinere joan ez, berez zeuzkan dohaiek, hala nola, zentzu argiak, ikusmen eta iritzizabalak, eta bizian zehar hartutako hainbat esperientziak pertsona intersgarria egin zuten Anttoni. Karlista gerratean beraiekin mendian ibiltzeak eta han ikusitako gogor-keriek ausarta eta bihotzuta egin zuten.

Behin trabia batek azpian umetxo bat xehatu zuela eta jende asko bildu zen hara eta haien artean Anttoni. Nongo umea zen aditu zuenean, bakarriz aurreratu zen, haur-aren puskak aurreko mantalean jaso eta etxera eramane zuten.

Egunero lagun baten etxera joaten zen ikustaldira bat egitera eta han herriko maistra aurkitzen zuen. Honek euskaraz tu-

tik ere ez zekien eta, tamalez, guziak erdaraz mintzatzea behartzen zituen. Anttonik, aldez, oso gutxi zekien erdaraz, baina hitz gutxiarekin esannahia ulertzen zitzaion. Begira, bestela. Behin batean hizketaldi batean gizatasuna gero eta gehiago gaitzen ari dela aipatzen ari zirelarik, hauxe izan zen Anttoniren errematea: "Mira, la maistra, en hoy, lonbre lonbresillua y en bigar monikakillua".

Beste batean, Euskal herri guzian zabaldu zen Ezkiogako Amabirjinaren ager-pena zuten gaia, eta bero-beroa Hondarribitik hara zihotan autobusean joatea erabaki zuten. Txoferra, Anjel irundarra suertatu zen. Beronek zioenez, ez zuen ezertan sinisten eta bide guzian honela esaten aritu zen: "Os engañan como tontas. No hay ni Virgen, ni infierno, ni Cristo que lo fundó. La ciencia es el único que dice la verdad, el único...". Anttoni, berea gogoan, dena entzuten. Eta azkenik ondokoari galdetu zion: "Miñon, xein dute Lazientzia, Lazientzia hori? Ondokoak: "Hori, irundar bat da". Eta Anttonik: "To, irundar bat? Aita eta semia...". Eta txoferrari: "Lazientzia ser, un xai jaungoiko".

Gaurekin batera Ezkiogan sartu eta guziak, txoferra izan ezik, Amabirjinia agertu zela esaten zuten lekura joan ziren. Txoferra, berriz, bero bait zegoen, autobusaren ondoan, lurrean, lo zerraldo gelditu zen. Anttoni, jendetza haundiaran erdian, bere nortasuna, zentzu argia eta begiak zorroz-tuz, berehala konturatu zen Amabirjina

ikusten omen zuen andre hura burutik ahu-la zela eta autobusera bakarriz itzultzea erabaki zuen. Egia esan, gau ilun hartan Anttoniren itxura edozein izutzeko moduko zen: xahar-xaharra, esku batean kandela piztua, bestean errosarioak, mantelín beltz tupi-tupiki bi begi beltz eta sugar muturrak besterik ikusten uzten ez ziolan txoferrarengana hurbildu zen honela esanez: "En durmiendo, eh? en durmiendo...", makurtzean, kandela urtuaren ximistua txoferraren lepozokora ixurtzen zenik konturatu gabe. Hau, berriz, abotsa hura, lepoko erredura eta aurrez-aurre zeukan Anttoniren itxura hura sumatutakoan, euntalako saltua eginez, erdi lotan oihuka hasi zen: "Lavirgen! Infierno! Sandiós...! Anttonik: "oi, oi! Ai, gaxua, baduzu zerbait barren hortan. Tú desir no la Dios, no el Vierge... Nara, nara! Miñon tú tener un portzikaso, pero ahu-las no, ilufakeriz entanpoko, pero pentzar, pentzar...".

Baina txoferra, egiaz esnatu eta nor zen konturatu zenean: "Mecagüen la vieja, la vieja bruja que te parió, so bruja...!". "Si, bai, en agora desir nekasuen, pero tener tú un portzikaso y mi la Dios...".

Egiaz ez zela edozein gure Anttoni, bere zentzu argi, begiramen zabala eta begi huts-etz, bere azterketek Einstein jakintsua eramane zuten bizitzaren misterio mugetaraino iritsi zen, noski.

Lourdes Zubeldia



"Ikusie" bat Ezkiogan.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

- Ekaina 6 - 12: Iraola
13 - 19: Erauskin
20 - 26: Mayi
27 - 3: Iraola

Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

- Ekaina 2: Arratibel
5: Garmendia
12: Martinez
19: Arratibel
26: Garmendia

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusia - 641212


EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN

Goizeko 8,30etan Betherranean
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan



ARTE ERAKUSKETAK

Galeria **MENSU** erakusgelaren ormeetan "Alfonso" margolariaren lanak zintzilikatuko dira maiatzaren 24ean hasita ekainaren 7 arte.

Movellan arte galerian euskal margolarien kuadro bilduma ikusteko aukera izango dugu hilabete honetan.

Arte-Eder galerian eta ekainaren lehen arte, Jose M. Andreu margolariaren lanak ikusgai izango ditugu. Jarraian, eskulangintzaaz eta oleoz osatutako erakusketak zabalduko dira.

TTOPARA arte galerian, eskulanak, euskal buztintziaz eta zenbait oleo izango ditugu ikusgai uztaillaren lehena arte.

BATEN BILA...

Zenbat bizilagun ote ditu Hondarribiak? 13.000 bat mila. Zenbat HONDARRIBIA aldiak argitaratzen ote dira aldirio? 1.000 edo... Zenbat saltzen ote dira? 500. Zenbatek irakurtzen duten goiti beti? 100ek. Zenbatek irakurriko ote dute nire lantxo hau drogaz, antxoaz edo udaletxeaz ez aritzean? 30ek. Zenbatek izanen ote duten gai hau gogoko eta atsegin? 10ek. Zenbatek jasoko ote dute nire konbite eta deia?... 1ek.

Ask! Nire helburua beteaz litzateke. Batek bederen jaramon egingo balit... Ez dut, beraz, asmo zabala eta luzea baina bai, nire ustez behinpehin, haundia, bakar bat sikiera zirikakotako banu. Horra...!

Hau argitara ateratzeko bukatuak izango da iada ESKOLARTEKO BERTSO-LARI GAZTETXOEN VIII. TXAPELKETA, edo bukatzeaz, hortze. Gertutik jarraitu baduzu, neuk une honetan baino gehiago dakikezu. Halere, ezjakina zarelakoan, kontatu nahi nizuke nondik nora dabilen txapel-keta hori, hurrengorako ere...

Orain 8 urte hasi zen eskolatiko gaztetxoak bertsoetara animatzearen eta, inor inon galdurik bazen akaso, jendaurrea bultzatzearen. Bi modutara egin ohi da: bertso-paperak idatziz edo eta bapatean kantatuz. Lehendabiziko aldi hartara 100 lagun agertu ziren 81ean; aurtengoa, aldiz, 1.200 lagunek hartu dute parte bertso-paperean eta 50ek bapatekoan. Arrakastarena, beraz, esan gabe doa.

Urteik urtera txapeladun suertatu direnak, bestealde, ez dira edozein, eman dute eta ematen ari dira zer esanik franko: 81 eta 83.ean Jon Sarasua izan zen; 82 eta 84.ean, Xabier Euskilte; 85.ean, Arantza Loidi; 86.ean, Paulo Joxe Aristorena; 87.ean, Joxe Munduate. Aurtengo txapeladuna ezin esan dizut nik, erabitzek bait dago oraindikokoan.

Gipuzkoako Ikastolen Elkartea delarik antolatzaile eta Foru Aldundia babesle, urtero lau bailarratan-edo egin ohi dira semi-

nalak, tokian tokiko bertsozaleak bilduz eta elkarrekin lehiatuz, azkenik finala beti Donostian egiteko: aurtien Maiatzaren 28an Karmelo Baldan goizeko 11etan.

Hil hontan bertan, maiatzaren 7an, egin zen lehenengo aldirio baitarako semifinala gure Hondarribian, Juan Sebastian Elkano ostaluetxean, hain zuzen, Donostiako Bidasoarraino gaztetxoak izan genituen gure artean: 300 bat lagunek bertso-paperetan parte hartuz eta 12k bapateko bertso lanean. Bagenituen Baionatik-eta etorritako bertso jartzaileak ere; horien artean bat sein-alagarri, Xalbador zenaren biloba: "kastatik kondeal".

Aurkezianetan Jokin Sorozabal bertso-laria aritu zen, Mikel Mendizabal ere, denen arduradun nagusi, hain ikusi ahal izan genuen batetik bestera. Ume eta haundi, ostaluetxoak jangela zeharo bete publikoak eta honek ematen duen animo eta eraginpean ekin zioten bertso-lariak kantauri.

Oiarzun eta Hernanik, zeinek baino zeinek talde landuagoak ekarri zituzten, ondo lezitatuko neska-mutilak, alajaietan! Gaztetxoetan ere txispa badatorrela ikus dezazuen, hona hemen Unai Agirrek osatu zuen bertso bat lau oinak emanda:

"Burutik mareatu eta nabil gaizki
edan ditudalako ginebra ta wiski,
Bat hartu beharren edan dituz zapzi
orain hau gertatzea normala da, noski!"

Nola aurrera segi, ordea, eta egun horretako aipamenak bukatu, herriko alaba batenak goratupe gabe? nolaz, ba...! Inork gutxik dakiela badirudi ere, bada gure Hondarribian bertso jartzaile aparta, azken urteotan sari eta merezimendu bailara jaso dituen, bertso lanerako purrakatua; gaztea denez, bertsoa gozo-bizi moldatzen duena eta, emakumetxo denez, leun-dotore orrazten duen honietakoa. Mayi Iza Agirre duzu, noski, bai!

Urtero bezala aurtien ere aurkeztu da haundien sailera, 15 urtetik 18ra bitartekoentzako. Oraindik ezin esan zer gerta

litekeen, baina ez da mixiko aldia kapelua Hondarribira ekarki duena: duela gutxi "On Manuel Lekuona"ren bertso-paper lehiaketan 1. saria irabazi du! Zorionik beroena!!

Hara hemen **Mayi Iza** idatzitako hiru bertsoak, Santa Genobebaren doinuaren kontatzeko, eta gaia honako hau jarri ziotelarik: "Txori bat ikusi duz geroa mokoan duela".

Gaurko goizean egin duenez eguraldi nahiko ona pixka batean ibili eta mendian naiz ni egona. Zeinek pentsatu basoan hainbat langile zintzo dagona, abere txiki asko zebilen etengabe hara-hona.

Hoien artean txori bat bazen arina eta azkarra, arbola haundi baten gainean aukeratu du adarra ta goroldio kariatutzen hasi da su eta garra. Arraultzak jarri baino lehen zuen kabia egin beharra.

Udazkenean esana zigun hurrengorarte adio; orain berrito bueltatu zaigu -ardaska ta goroldio- ta lagunari kabi txiki bat egiten lagundu dio horretan jarri ahal zuen hainbat indart eta amodio.

Ea urterekin batera Mayik ere aurrera eta goiti egiten digun, eta haren ondoren berririk ere beste norbait sortzen zaigun plazara. Ez zioten hasera txarra eman herri-tar batzuk Hondarribiako I. Olinpiadak zirela eta...!

Hartara, nire lantxo honen helburua gainetza beteaz legoke: batek bederen jaramon egingo balit sikiera...!

Jeusmari Mendizabal

ESKIFAIA-REN SARIA ALEMANIAN

Eskifaia, Javier Bustoren gidaritzapean beste garaipen arrakastatsu bat lortu berri du Alemanian, maiatzaren 14ean, Frankfurt-eko Mainhausen-en. Nazioarteko lehiaketa horretan bigarren gelditu da, Filipinetako koro baten ondoan. Besteak beste, Austria, Belgika, Bulgaria, Txekoslovakia, Dinamarka, Hungaria, Indonesia, Israel eta Alemaniako abesbatzek hartu bait zuten parte lehiaketa horretan, eta Eskifaia izuzenean egin zioten bertara joateko deia. Bidaia aprobetxatuz kontzertu batzuk ere

eman dituzte Alemanian, Waldorschule delakoan adibidez, eta Austrian Vienako Musikaren Jauregian.

Ostegunean, hilak 19, Hondarribira iritsi, Miramarren herriartean ongietorri beroa jaso eta biharamunen bertan Tolosako Leidorren genituen kantari. Amasaldi bat entsaiatzeko eta laster Holandara berriz.

Ezin esan Eskifaia-rena lan "isila" denik ederki eta gustoz entzuten dena izaki, bai ordea fruitu asko eta ugariakoa.



HEMEN, INSTITUTOA!

Ekaineko zenbaki honetan Hondarribiko Institutoari iritsi zaio txanda. Bi orrialde bete zizkigute hemen eta kirolarenetan ere badatoz lanak...

GURE ADINAREN ZAILTASUNA

Txikiak ala handiak, zer gara gu? Galdara honen aurrean aurkitzen gara etengabe. Institutorako sarrerak gure heldutasun apurra neurri handian zabaltzen digu bertan sartzen garen guztioi. Urte horretan heldutasuna bapatean gure gorputzean sartu dela iruditzen zaigu eta horrek lehen handietzak bakarrik ziren ekintzak burutzeko baimena adierazten duen txartela eskaintzen digu gure ustetan. Gure jakinmina hasetzeko helduen mundu berriko txoko guztiak ezagutu nahi ditugu eta bertan parte hartu. Parte hartzaile izan arren zenbait momentutan bartzertuak sentitzen gara eta bi mundu desberdinen artean balabztan nabaritzen ditugu gure gorputzak, gure oinak nora zuzenduko jakin gabe.

Badaude zenbait guraso guk 15 urtetan beraiek 17-18 urte arte lortu ez zuten heldutasuna edukitzea onartzen ez dutenak, eta honek nahasten gaitu guztiok. Beste alde batetik, sentitzen dugun heldutasun horrek bultzatuta, eztabaidan arrazoi duen ahots sakona izan nahi dugu, baina eskubide hau ez daukagunez, ixiltasunean murgildurik egon beharra, muinik gabeko haurrak bagina bezala, gurasoen arrazoidun ahotsa entzunaz, da horrelako kasuetan min gehien egiten duguna.

Min honen eraginez kaskargotzen gara eta normalean errabia hori botatzeko guretzako kaltegarri gertatzen diren ondorioak aukeratzera bultzatzen gaitu.

Bestalde, kanpoko ingurugiroak ere zerikusi handia du pertsona bakoitzaren jo-kaeren eta honek zailtzen dio errazten dio bakoitzari adin honen pisuarekin aurrera egitea.

Txikiak ala handiak, zer gara gu? Galdara honen erantzuna lortu arte gure bueruek nahasiak eta galderaz beteta jarraituko dute, eta gure ingurukoak ere zaila egingo zaie beti gu ulertzea, beranduago gure seme-alabak 14-15 urte egiten dituztenean guk ere ulertuko ez ditugun bezala, zeren, "denborak aldatu egiten dira", seme-alaba guztiek errepikatzen duten esaldi aspergarria izan arren, honetan behintzat arrazoi dugula uste dugu.

Leire Ugalde
Ma. Sol Alza

ESKIATZERA

Institutoko soinketako maiuak antolatutik eskiatzera joan ginen. Lehen aldiz kurtsoz kurtso joan ginen Pierre de San Martin-era eta egun batetarako bakarrik. Bigarren aldiz, asteburu batean joan ginen Luz Ardiden-era. Otsaila aldera joan ginen eta eski alpinoa egin genuen.

Larunbatean, goizeko 5etan ateratu ginen. Iritsi, eskiak alokatu eta pistetara igo ginen. Eskiatzeko ez zekienak klaseak hartu zitzaizkien eta besteak bere gisa joan.

Telearrastreak eta telesillak zeuden, eta hauetan ibiltzeko tikeak eman zizkiguten. Pista errexak eta zailak zeuden.

Pistetan bazkaldu genezakeen, horrela ez genuen denborarik galtzen. Baina lehenengo egunean ez zuen eguraldi ona egin. Bigarrenean, berriz, eguzkia ateratu zen. Denak beltzutunik etorri ginen.

Lo egiteko bi leku zeuden: karabanetan edo albergean. Gauean parranda egin genuen, batzu diskotekara joan ziren eta beste batzu alberge edo karabanetan gelditu ziren.

Hurrengo egunean, nahiz eta esnatzeko gogorik ez eduki, eskiatu egin genuen egun guztian. Pistak 5etan itxi zituzten eta 6ak aldera abiatu ginen. Eskiak utzi eta Hondarribirako bueltan abiatu ginen. Hona 10ak aldera iritsi ginen, aurpegiak beltzutuak eta nekaturik.

Maidar Elizegi,
Serena Garcia



OHO-tik BBB-ra DAGOEN SALTOA

Gu Biteri Eskolatik etorri ginen.

Lehenengo astean atzeritar batzuk bezala geunden. Hemen libertate handia dago OHO-kin konparatuz. Maisuek ez daude gure gain, ez digute presio handirik egiten.

Gure harremanak oso estuak dira.

OHO-an gure maisuak nahiz eta bigarren etapa egon gufaz asko arduratzen ziren. Honengatik harremanak zabalagoak genituela esan dezakegu.

BBB-n lagun asko egin dezakezu, zeren eta gaztelaniazkoak eta euskarazkoak eskola berean gaude.

Hemen ikasgaiak errazak dira ikasteko, baina ikasgai hauek oso zabalak eta luzeak dira.

Gure ustez globala kentzea oso ideia ona izan da, zeren kurtso osoko gaiak ikas tea oso gauza gogorra izaten da.

OHO-n klaseak goizez eta arratsaldean ematen dira eta nahiz eta ordu gutxiago egin eguna gero eta luzeagoa iruditzen zitzaizun.

BBB-en berriz goizez bakarrik ematen dira eta goizak azkarrago pasatzen dira.

Maria Larrea,
Beatriz Astegui

IKASTEKO MODU BERRIAK

Betidanik egin zaigu ikasle guztioi oso aspergarria ikastea. Baina aurtan Hondarribiko Institutioan egiaztatu dugunez, ikasteko modu atseginak ere badaudela ikusi dugu.

Esperientzia hau historiako klaseetan bakarrik jarri genuen martxan.

Tomas, gure historiako irakasleak, bezekien bai, guretzat zein aspergarria zen historia ikastea. Horrexegatik, irtenbide baten bila hasi zen, eta, baita topatu ere!

Ez dakit gure Tomasek nonbaiten entzunda izango ote zuen historiako klaseak antzerkiaren bidez irakatsi zitezkeenik, baina guri oso ondo iruditu zitzagunez, horretan hasi ginen.

Lehenengo urtea zenez, bildurra ere bazuek gauzak gaixki aterako ote ziren, baina, tira, aurrera!

Lehenengoz historiaurreko leinuei buruz pelikula bat egin genuen. Jol! Zein ederki pasa genuen! Eta ez pentsa; asko ikasi genuen!!

Pelikulaz gain beste gauza asko ere egin ditugu.

Errioxako erakusketa batera joan ginen, bideo eta pelikula ugari ikusi genituen, gela marrazki bete genuen, biñetak ere egin genituen, eta hoberena, zera izan zen: SUPERBIBENTZIA.

Superbibentzia egitea pentsatu genuen, hau zelako, bai, lehenengo leinueen bizimodua aztertzeko erarik aproposena; garai hori bitziaz.

Asteburua bat gaztainaz, osinez, perretxikoz animalitxo... eta honelako gauzetaz bizitzten eta elikatzen ikasi genuen. Baita mendiko edozein tokitan lo egiten ikasi genuen: batzu belar gainean, besteak leizezuloetan... e.a.

Eta ez uste, udazkena zenez, hotza pasatzen ere ikasi behar izan genuen.

Beno, hitz batez: oso ondo pasa genuen.

Hasierako pelikularen esperientzia hain

ona izan zenez, asteburu honetan ere ba-goaz Nafarroara, han beste pelikula bat filmatzera. Zein ondo pasako dugun...

Beno, eta guzti hau azaldu eta gero, ikasle guztioi, beren irakasleei hau azaltzea eskatuko nieke, zeren eta honela, askoz ere hobeto ikas daiteke. Eta onena, zuk garai haiek bizitzten dituzula da. Egia, oso esperientzia ona izan dugu, eta datorren urtean, ea zuek ere honela ikasten duzuen...

Ainhara Obeso



Amair eta Ainhara "superbibentzia" egiten.

BAI, BAI, TXOFER JATORRA IZANGO DUN,
MIÑON EURIA ARI DUENTIAN
AUTOBUSA GARAJEAN AHATUTZIA
NIK ETZIONAT BARKATZEN!



SOLASAK
eta
JOLASAK

J U N K A E P U L A D A U G I
O A R L A X D A L K P E L G R
K M I G O H T L E O N B E A R
A U N Z O N A L T S A T D I A
O T A B U R U D S T R A N I M
M E S P I B O K U A N I E K A
B A T E O N I R K E M I H U D
A Z S A N T I A G O T X O K O



LETRA SALDA

"Letra Salda" honetan Hondarribiko 10 auzo edo toki izen aurkitu behar dituzu. Izenok eskuinetik ezkerrera, ezkeretik eskuinera, goitik behera, behetik gora eta zeharka ere egon daitezke idatzia.

MAYI IZA

Bertsolaritza-mundua du oso gusto-koa Mayik, eta nabarmena da gai horren gain blagan hasitzen denean. Ez du boza altzatuta esango irabazi tuen bertso-paperekin lehiaketa zerrenda, biñon luzea dela badakigu; 1983 ezkerotik makina bat txapela burura ttu. Aurtan bertan **Herrera**ko **Txirrita** eta **Oiarzango Manuel** **Lekuona** sariak jaso ttu. Seguru gaude ez direla azkenekoak izango.

—H: Bertso-mundua, nola etorri zaizu afizio hori?

M: Etxean ikasi nuen, ttikitatik joaten ginen bertso-saiotetara, eta attak erakutsi zian hasieran. Gero, nere kontura.

Joan nintzen 81eko Eskolarteko Txapelketako finala ikustera, eta presentatu nintzen 83. urtean.

OHOk seigarren mailan nengoela joaten nintzen astean behin Jaizubiako ikastolara bertsolaritza ematera, Jexuxmari Mendizabalekin. Hori seigarren mailan, eta Eskolarteko 3. txapelketara presentatu nintzen. Hor hasi nintzen, eta zortzigarren mailan nintzela lrunen ematen zuten Joan Garziak eta Xanti Zabalk, ta hara joaten nintzen. Gero BUPen 2.ean Xanti Zabalkin lrunen. Aurtan, berriz, Donostiako Santo Tomas Lizoean ikasten ari naiz, eta bertara etortzen da Euskitez bertsolaria.

—H: Beraz, zaletasun hori landu egiten duzu, beste modurik ere baduzu lantzeko?

M: Bai, bertsoko aritlu dextente iratian, saiotetara joan, irakurri... Nik idatziz ez, behintzat txapelketatik aparte ez dut batere idazten, ez bada bertsolaritzako klasean.

—H: Bertsolarien mundua segitzen duzu, zein gustatzen zaizu?

M: Niri bertsolariak, uste dut gustatzen zaizkidala denak, bakoitzak du bere momentua. Afalondo batean Sebastian Lizaso ondo dago, edo momentu serio batean Murua edo Egaña, segun ze gai dagoen, zeinekin...

—H: Zu oso kontziente zara, bertso sail bat egitean, gauza batzuek jarrita jende guziak esaten ttuela...

M: Bai, beti daude gauza batzuek mundu guziak esaten ttuenak. Edozein gai hartuta, *hau ta hau ta hau*, denek esaten dute. Gero, aparte dago zuk esaten duzuna. Zure kutsua ematen dio beste horrek, baño behartutako kentzea zaila da, ta nik uste dut hori dela gehien puntuatzen dena. Txapelketan bertan ikusten zenuen "Gora Euskadi" esaten zuen bateri ematen ziotela bederatzit puntu, eta igual bertsoek ez zuten balio. Baño batzuek badire holakoak. Orain denetik dago, batzuek hasi dire kritikatzen.

—H: Biñon beste aldetik entzulegoak eskatzen duena hori da...

M: Entzulegoak bertsolariak hori esan eta txalo egiten du, hori egia da. Askotan gaia ez da jarraitzen horregatik, txaloak ja-

sozteagatik, edo ez dakizulako zer esan.

BERTSOLARIAK

—H: Esango bagenitzazu gaur egungo bertsolari batzuek definitzeko, zer da **Sebastian Lizaso**gan gustatzen zaizuna?

M: Lizaso afalondo batean zoragarri da *Saltsa* asko, du. Afalondoa izaten da bromako giro bat, adarra josten duzu eta adarra josten dizu, ta mundu guztiak farre egiten du eta ondo pasatzen duzu. Nik behintzat afaldu dudanean berekin oso ondo dago.

Eta **Joxe Lizaso** berdin berdin izango da, nik uste.

—H: Kontrakoa izango litzateke **Amuriza**?

M: Batzuek esaten dute laborategiko bertsolaria dela. Eta agian egia da. Gustatzen zait, baño beste estilo bat dauka. Nik uste dut hobe dela gai bat eman eta bera bakarka aritzea.

—H: Eta **Lazkao Txiki**?

M: Lazkao Txiki, nekatsen hasia dago, gero eta egun txar gehiago ttu. Bromak gastatzeko oso ondo dago, oso xehebrea da, bañon gai serioetan ere oso ona da. Berak esaten du nahiago ttuela gai serioak, baño jendeak ikusi duela bufoi bat bezala, ta beti gai hоек jartzen dizkiotela: ttikia, mutilaharra...

—H: **Lopategi**?

M: Lopategi ez dut asko ezagutzen, baño horrek jendearen txaloak biltzen ttu pila bat. Esaten dio kontrakoari jendea iri gustatzen ez zion zer bait dela, orduan jendeak berari txalo egiten dio, eta kontrakoari mania hartzen dio. Adibidez: "Francon garraiko gizona zera / ta harritzekoa ezta", honela jendeak bera txalotu egiten du.

—H: **Jon Sarasua**?

M: Txapelketan sartu zenean pentsatu nuen ezingo ttuela egin. Irattu nuenean gai serioetan beti oso ondo, baño uste nuen bromako hoietan ez zela moldatuko. Uste nuen bañon askoz hobeto moldatu zen azkeneko txapelketan. Eta harritzen nauena da bertso-eskola batetik hain ona ateratzea. Nik uste dut plazakoak hobeak direla.

—H: Espikatu hori, faborez...

M: Eskola batean ikasteko eta hain ona izateko ona behar da berez. Bestela eskolan sartu diren denak bertsolariak dire eta kitto. Plazakoak beste merito bat du. Plazako bertsolari bat presentatzen zailltute egun batean, eta ezagutuko zailltu, eskolako batek hamar aldiz presentatu arte ez zailltu ezagutzen. Diferenteak dira.

BERTSO-PAPERAK

—H: Zer diferentzia dago plazako bertsolaritzatik idatzitako bertsolaritzaz?

M: Nik uste dut diferentzia honako hau dela: zuk idazten duzunean paper batean ez dakizu zeinek irakurriko duen, ez dakizu ze umorekin egongo den irakurtzen duen



Lehenengo txapela: Txirrita Saria (Herrera, 1983)

hori. Zuk plazan kantatzen duzunean ikusten duzu arituko dizuna, ta ez duzu esaten edozer gauza, esaten duzu giroari dagokion gauza bat. Idazten duzunean zu eta papera, bakarrik zaude; gero dago irakurlea, idazten duzunean ez dago inor aurrean. Eta uste dut idatzizko bertsoek hobeak izan behar dutela.

—H: Ta hobeak izaten dire?

M: Ez, askotan ez. Idatziz egiten duzunean ezin da gaizki egin. Daukazu nahi duzun denbora guztia bertsoa egiteko. Kantatzean ez dut esan nahi gaizki egin daitekeenik, baina barkatu daiteke, idatzian ez.

BERTSOZALETASUNA HONDARRIBIAN

—H: Zuk bertso-zaletasuna duzu, Hondarrbian ikusi duzu girorik horretarako?

M: Ez da giroa ikusten. Igual etortzen dire bertsolariak Hondarrbia, gainera onak: Gorrotxategi, Lizaso, Txomin Garmendia, Lazkao Txiki... ta Kale Nagusia egoten da Huts-hutsa, jendea alde batera eta bestera, sokamuturra dagoelako gero, lau katu hor aritzen, ia inork ez du txalo egiten... eta batzutan loisa ta dena pasatzen dut. Baño ze egingo diogu?

—H: Biñon joaten zera aritzera...

M: Bai, joaten naiz... hori bakarrik falta zen!

AITA BISITATZERA

Martin Ugalde

Hondarribia-ko azken alean irakurri dut Maritxu Begikuri-ren biografia.

Hara, honetarakoxe ari gara egiten hile-rokoa: herriko historia ezagutzeko, gaur bertan gertatzen ari direnak jakiteko, hemaren etorkizunerako agiantzari dituzten asmoak ezagutzeko, eta asmo hauek aurrean herriarrek bere iritzia emateko.

Hau da kazetaritaren muina.

Ba neuk Hondarribia-ko maiatzeko alean jakin dut Maritxu nor den; neuk ezagutzen nuen, noski, baina emakume honen pertsonalitate alai eta langilearen berri ez dut izan orainxe arte; ez nekien inauterietan mozorrotzeko ohitura zuenik ere; eta, gehiago: hor agertzen den gizon soroherodun hori ikusi nuen kalez-kale, grazi handiarekin, baina ez nuen sekula pentsatu neuk ezagutzen nuen inor zenik.

Hau dena, eta beste berri asko, gure hilerokoaren bitartez jakin ahal izan ditut.

Honek esan nahi du, kazetaritza herriko honak baduela zentzu garrantzitsu bat; elkarren berri izateko bide polita eta behar-beharrezkoa dela gainera; gaurko Honda-

rribia ez baita 1936go herrixka, ezta mundu-gerra amaitu zeneko 1945koa, eta ezta inoiz oneratu nintzaneko 1969koa ere.

Urte hau alpatzen dut, bereziki, honi eta Maritxu Begikuri-ri lotua baitago neuk hemen azaldu nahi dudana.

Aipa izandu dut, Hondarribiako Enrike Albizu, pintore ospetsua, Venezuelara ezagutu nuela; han egin zituen urte batzua bere obra ederra zabalitzen; erretratu handien artean, Joseba Andoni Agirre Lehendakaria-rena egin zuen Caracaseko Eusko Etxearen



enikarguz; erakusketak batzua ere egin zituen, eta hauetako batean erosi nion Hondarribian egin eta hara eramán zituen artean, erretratu bat. Askok gustatu zitzaigun kuadroa zen: arrantzale bat mahaian esenta gatzia, ogi eta porroi baten aurrean.

Aurpegi paketsu eta begirada goxoko gizona.

Ondarrik ezagutzen ez nituen Ondarribi-ko gizon urdineta bati.

Neuk ez nekien inoiz honeratu nintzenik; baina uste gabeko gauza asko gertatzen zaiotziko gizaikiari, eta hara nola urteak joan eta honeratzin garen, eta harrez gero hemen oso pozik bizi garen.

Nire gogoz, betrakoa.

Ba, ni honera etorri berriko egun batean atea jo eta neronek ireki nuen; eta andere polit bat zen bere aitarengatik galdezka, bere aita ikusi nahi zuela. Neuk esan nion, tronpatu egin zela, han neuk bizi nintzela nire familiarekin...

"Bai, biho nere aita hemen dago kuadro batean".

Berehala konturatu nintzen, emazteki haren begi gris-xuriak lehen beste nonbaita ikusi nituela... geure saloiaen egunero ikusten nuen patxara goxoko gizonaren aurpegiari...

Halaxe eskatu nion sartzeko, mesedez, eta jarri nuen Maritxu bere aitaren aurrean.

BANDOLEROTZATIK DANTZA-BILTZAILERA, PRESONDEGIAN KONTZEZIZ MAITEMINDURIK

Maite bat maitatzen dut maitagarria, begi ederra du ta guztiz argia, daukat urrutu,

baina ezin kendu dut buruti, haren itxura.

Saldut al baliteke pisura urriaren truke, nor eferosi faltako ez nuke.

Jose Manterola donostiarrak **Cancionero Vasco** (1877) bildumaren lehen liburukian argitaratu zuenean ezer gutxi zekien egile zen lzuetairen bizitzaz. Gaur, oraindik ere, ez dakigu gauza askorik. Baina maiatasunez gainetza idatzitako bertso hortan ezkutuko misterio-rik nabari da.

Misterio hortan argitasuna ematera lagunduko zigen gutun bat bada, oraintsu berargitaratua, Luis de Usoz y Rionafar protestantearen Antologia, Eugenio Cobo-k prestatutik, atera berri du Madrid-eko Ediciones Pléroma etxeak "Clásicos del Protestantismo" saillean. Bertan dator, 169. orrialdean, Mitxelena **Historia de la Literatura Vasca** (1960) liburuan alpatzen zigen gutuna, lzuetairen gazarroko bandoleroa bizitza salatzen duena. Bi urte lehenago (1958) A. Irigaray midikuak Euskalerriaren Adiskideak Elkarteak boletinean emana zuen Luis de Usozen gutun hori.

Gutuna, 1842an J. Gräberg Hemsö jaunari Alemaniar idatzia zen, **Gipuzkoako dantzak** (1824) liburu igorritz.

Non agertzen zuen egile zen Juan Inazio lzuetairen bidelapurtzako ogibidea, esanaz: "lzueta que fue en principio ladrón de caminos o bandolero: robaba en compañía de un hermano suyo...", eta harriturik zegoen holako gaizkile bati liburu argitaratzen usteaz, beraiek. Bilbia Sainduaren zabalkunderako eragozpena baizik aurkitzen ez zuten garaian. Baina Usozek apenak apenaz zekien ezer lzuetairenen kritika gisa Fr. Bartolomek barreiatu zituen gatz-ozpindeuz.

Anaia atxilotu zutenean, meatxuz eta zenbat mesederen truke, Juan Inazio preso hartzen lagundu omen zuen. Nork pentsa holakorik? Harrigarria baderitzazu ere, gertakari horren ondorioz sortu zen "Kontzezin" eskainia den kanta hori; sentipenez beterik baina hala-holako hizkeraz. Bere doinu politik lagundu dio euskaldunon ahoetan gure denboretara aite irauarazteia eta hori ere bada zerbit. Dantzen liburuak ordea, gaieren aldetik baliok ditu eta uka ezinezko zaigu horri esker salbatu direla ohizko folkloreaken zati asko, erakinez eman zigen doinuak musikak jator asko salbatu zituen bezala.

Dantzen hirugarren zatia erdialdean "Ondarribia andia" eta "Ondarribia txikia" zentzualenen berri ematen du, zenbat dantzari, konpaz taxurak eta punduak zehatz-mehatz adieraziz. Gaur egun inork ba ote dakizki dantza ho-

riek? Beste dantza batzuk iraun dute, baina Hondarribiko ez apenak dakigu lzueta biltzailearen bizitzaz adina.

Ezer guti horren barnean, hara hor, Azpeitin sei urtez preso zergatik eduki zuten: bideetako lapurketegatik. Presondegian ezagutu zuen Kontzezi kutuna, apenezan neska zelarik haundun gelditu ondoren, haur jaiotz berria hil zuelako han bertan preso zegoena. Horela izan zuten elkar ezagutzeko aukera. lzuetairen bihotza, bandoleroa iza nagatik ere, sentibera izaki eta hunkiturik aurkitu zen. Baina: "hogeita lau leguaz nago aparte, birtaiean badauzkat miloi bat ate...". Sentiberatasunak eragirik, tristuraz egingo zituen maiatasunezko bertso haiek: "Egunaz argi gutxi, gauen ilun, kontsuelorik ez da neretzat iriun".

Poesiagintzarako ikasia ez bazen ere, iuridimena bizkortu zitzaion, erromantiko giroan murgildurik.

Bizitzaz, bertso honiek ematen digute argibidezko zirrikiturik eta azkenengo ordea gaizkilegoaren damuarena:

Esperantzetan bizi, maite gozoa; noizbait klupluktiko da gure plazoa; eta orduan... gauza txarrik ez hartu buruan, lengoai utzi; ez degu pasatzen pena gutxi preso sei urtez onduko gaituzte nere uestez.

Juan San Martin

SAN ISIDRO

Aldizkari honek argia ikusi orduko seguruena ere SAN ISIDRO eguna ahaztuzkoa egongo da eta, belarrak nola idortu, egunero eguraldiari begira egongo gara. Baina, halaxe zerbaite alpatu nahi nuke guk patroitzat hartzen dugun santutaz eta egun horretan Guadalupen, aurren, egin zen jaietaz.

Txikitatiki beti entzuten izan dut San Isidro egunean, -nahiz eta aste egunez tokatu- ez zela lanik egin behar egun horretan; ez zirela behirik uztartu behar: egun hori errespetatu egin behar zela; bestela, zorte txarra izango genuela eta abar... Halaxe, beti izaten zen norbait ausartagoa edo gogoratzten ez zena edo patroiarri kasu gehiegirik egiten ez ziona, batez ere apaizen begietatik urruti xamar egon ezkerre. Izan ere, egun honek fedea dela eta nahiko mito bait zeukan berrekin. Hainbeste aldiz entzuten genuen mirari kontuak, ia beti zerbaite zain egoten ginen, nahiz eta sekulan iritzi ez, eta gaur egun, zoriorez, mirari kontu hori aldentuzkoa dugu baserriar gehinok. Baina, pentsatu al duzue nozibait, zenbaterainoko edertasuna izango litzatekeen gurtzetaz, leihotik begiratu eta artoa eta gainontzeko gauzak bere kasa etorriko balira...? Errealitate ordea, guztiz ezberdina da, hau da, eroin eta gurtzi eta bestela batereiz bait da nekazarien lema.

San Isidro egunak azken urte hauetan, jai giro berezia hartu du Hondarrribian, urtero egiten bait da jaialdia Guadalupen. Gainera, aurren igandearkin tokatzen zenez, festa polita egin zen, nahiz eta goizpartean eguraldiak gehiegirik lagundu ez. Horrela, hamabiak laurden gutxi aldera prozesioari eta kanpoak bedekizteari ekin zitzaion, gero mezarekin jarraituz. Ondoren, bertsoari saioa. Han aritu ziren Lazkaoxiki eta Lizaso zaharra, ohi duten maixutasunarekin.



Justiz

¡Ez zale adinarekin hitz jarria eten ez! Kantaldia amaitu eta gero bazkaria. Hauxe izaten da, seguruena ere, unerik goxoena. oso gauza polita izaten da bazkalarean izaten den hitz urritasuna eta gero, janariz eta alkohez sabela ederki bete ondoren somatzen den aldea.

Artsaldeko seiak aldea izango zen mahaitik altxatu orduko eta une honetan hasi ziren ilunabarreko ikuskizunak. Lehenbiziko zezanak izan ziren. Ikuskizun polita gertatzen da, Euskal Herrian eta nonahi ere geruta gehiago zabaltzen ari den jolas hau. Badirudi, gaur egun, zezanak gabeko jaialdirik ez dagoela, baina aurren Guadalupen zezanak bukatzerakoan zenbait "poni" libratu zituzten. Eta orduantxe hasi zen hurrentzako festa, bai... Haur asko zen zaldi txiki hauen gainean ibili nahi zuena, baina ez pentsatu hain erreza zenik, zeren eta zalditxo hauek, txikiak izanarren saioa eta

puztarketa hasten bait ziren muti eta neska koskorak bizkar bainera igo baino lehen.

Azkenik, eta eguna aurrera zijoan heinean, aizkolariak, harrijasotzaileak, bertsolariak eta trikitixa izan genituen denon dibertigarri, harri altxatzen Mendeluko "Tito"-k egin zigun demostrazio polita, nahiz eta goizean "Ventas"-en aritua izan. Aizkolariak ere han aritu ziren jo eta ke gazte-zaharren arteko lehia. Esan daiteke, gazteak nagusitu zirela, baina, urteetan dextente sartua egonagatik Martintxoneko "Patxi Burni"-k erakutsi zigun maixutasun aparta. Bera izan zen zutik zeuden egurrak moztien hobereana. Halaxe ulertu zuen Antolaketa Batzordea ere, eta aizkora uztera dijoanez trofeo bat eman zion. Eta jardunaldi bukatzeko berririo ere bertsolariak eta trikitixa.

J. J. Bereau

ARRANTZA

APIRILA

Dagoeneko berdel sasoiak bukatzeaz dago eta ezer gutxi sartuko zaigu kaian hemendik aurrera.

Aurren, denara, 2.300.000 kilo berdel hatzeman dute, hauetatik 700.000 konjeladoreetan gelditu direlarik, ahal denean saltzeko asmotan.

60 itsasuntzi dira berdeletan ibiliak eta orain, ohi bezala, legatzetara itengo dira, maiatza eta ekaina iharduteko esperantzaz; ea, aurreko urtean bezain emaitza onak izaten ditugun.

ANTXOXA

Orain arte bi egunez bakarrik hatzeman dute antxoa, batean 25.000 eta 30.000 kilo bestean. Salneurria 350/480 pezeta kiloko. Ez pentsa arrantzaz hauek segidako egunean izan direnik. 27an izan zen hain zuzen lehenengo arrantza, kaira itzuli, deskarga

egin eta han joan ziren bihamunearn itxaropentsu berririo arrain bila, orangoan ordea, deus hartu gabe gelditu ziren. Garbi ikusten zen frantes arrasteroak beren sara pelagiko eta guzi handik paseak zirela. Horiek horrela, tipo horiek ibiltzako tokitan arrantza egiteko asmotan joaten direnek jai dute.

Hartu den antxoaren tamaina aproposa izan da 29/42 ale kiloko. Bi egun besterik ez, ordea! Duela hamar bat urte han joaten ziren gure gizonek astelenehoro, aurretik jakinda larunbat eta igandeko atsedena eta gero arrain ugarien jabe egingo zirela, eta hala izaten zen.

Baina orain, ez dute ezer errespetatzeko, beste "horiei" berdin zale aste egun edo jai egun izan, berea egitea besterik ez dute gogoan. Ez legerik etz ez atsedene egunik, alderantziz behar bada, egun horietan komeni bait zale arrantzaz lanetan ibiltzea, ixilean, izkutan, besteren uretan sartuz.

Martxa honetan, gainean dugu antxoa desagertuko den eguna. Batzuk, ez dute



arriku hori ikusi nahi eta ez diete gure kekei jaramonik egiten, beldur gara, ordea, uste baino lehen itenbiderik gabeko arazo bihurtuko ez ote zaigun.

Beren kostaldean arrain guziarekin bukatu ondoren gurea jo eta, batzarrak izorratzera. Ez dute etorkizunarekiko begirunerik, hatzemandako guzia eraman eta... bukatzen denean?

Andres Olasoaga

SAN JUAN GAUEKO AMETSA

Berez, ametsa udaberriak ekarri zuen, zeren martxoaren bukaeran hasi bait ginen antzerki lan honetan pentsatzeko. 1594gn. urteko udazkenean William Shakespeare-ri bururatu zitzaion komedia hura: "A MID-SUMMER-NIGHTS' DREAM", jatorrizko izenburuaz. J. M.^a Valverde, Espainiko literato famatua, "El sueño de una noche de San Juan" itzuli zuen gaztelera, Shakespearearen obra honen izpirituari hobeto zegokiolakoan. Obra honek Ingalaterra Elisabethianoko maiatzako jaien tradizioak jasotzen omen ditu. Kasu guztietan MID-SUMMER hitz konposatuak udako solstizioa adierazten du, hots, guretzat San Juan bezperako gaua.

Gau majikoa, amodioen gaua, San Juan belar edo izusta, "verbena delako belarra, berbena edo gaupesta botanikarik jaira bihurtu dugu, natura festa. Edozein bitxiak gerta daiteke gau honetan, non natura-ko izpiritu, iratxo hada eta mamu guztiak elkartzen diren ilargibete azpian, Oberon eta Titania errege-erreginek aginduta, giza-kien arima kilimatze.

Gure arima kilimatu zuten eta apirilaren erditik lanean jarri ginen lagun mordo bat Saindua Gaztetxe berriko horma txurik ametsaz koloretzatuz.

1984. ekainak 23an, garaiko Espresio Tailerrak eta Hamaika ballet-teatro taldeak, bien artean, Arma Plaza berpiztu genuen "ILUNTZEAN..." ikuskizunarekin. Aktoreek dantza errotularen bidez, antortxak eskue-tan, San Juan sua piztu zuten, grinak errez eta festa piztuz.

Ordutik gaurdaino festa hau ospatzen jarraitu dugu, eta aurren, indar berriekin, berriaz ospatzeko prestatzen ari gara.

"SAN JUAN GAUEKO AMETSA", W. Shakespearearen alpatutako obraren erre-kreazio bat da. Honek esan nahi du obra oinarri bezala hartu dugula eta gidoiaren li-nea orokorra errespetatuz, gure posibilita-teei moldatuta, egin dugula antzerki ikusi-zuna.

Ikuskizunak espresio artistiko desberdi-nak biltzen ditu: antzerkia bera, koreografia eta musika. Azken honentzat F. Mendels-sonek antzerki honetarako egin zuen "Obra accidental" estudiatu dugu, *Noctur-no* eta *Finale* edo azken kantua bereziki. Musikiak baditugu gure artean lan molda-keta egiteko eta gainera Bordenako *Quintet Panalaxe*-aren kolaborazioarekin kontatzen dugu.

Hogei bat lagun biltzen gara astero hiru egunetan amets hau egia bihurtzeko as-moz. Nahiz eta zuzendaritzak HAIZEHOTSe-ko irakasleen eskuetan izan, lan taldeetan banatuta denok parte aktibo hartzen dugu muntaiari. Modu honetaz, muntaiari produk-zio bat baino, ikastaro bat da, non espresio ario ugari lantzen diren: aktorea, gidogilea, eskenografia, argia, jantzi diseinua, musika,

kantua, zuzendaritza, dantza eta koreogra-fia, bideo erreportajea, e.a.... Esperientzia bi-kaina.

Baina gu ez gara geure lan hau ikusleari presentatzearekin kontentatzen. Ikuskizuna luzatu nahi dugu su inguruan eta honek ber-rotuta, dantzaldia, berbena, antolatzen ari gara. Ea obrako basoko izpituak, honda-ribiarren artean nahastuta, beraien biho-tzetan zionaren kilimak berpizten dituz-ten.

Horra, 1988.ko UDA inaguratzeko, guk, HAIZEHOTSe-ko kide eta ikasleok Hondarribiko herriari eskaintzen dioguna. Laster arte eta UDA on pasa, amodio asko eta handiekin!

1988-V-21
Ramon Albistur
(Haizehots-ekoa)



Baserrin ibilbideko zuhaitz eder asko hiltzen an zaizkigu. Eta hii ezker horren han-diak izaki amikue ere bihurtzen dira, erorita istripua sortu dezaketelako. Torrea-ren pareko zumar horrek su ikusgarria egingo du agian San Juan bezperan.

DEMOGRAFIA

JAIOZAK

APIRILA

22: IRATI MARTA Diaz Zapirain

Gurasoak: Candido eta M.^a Teresa

24: IKER Garcia Soler

Gurasoak: Roberto Claudio eta M.^a Carmen

MAIATZA

1: LAURA Casanova Moreno
Gurasoak: Jose Luis eta M.^a Elena

7: IDOIA Sarsola Eizaguirre
Gurasoak: Pio eta Manuela

7: CRISTINA Uriarte Esteban
Gurasoak: Iñaki eta M.^a Jesus

11: GUILLERMO Ripa Oliden

Gurasoak: Francisco Javier eta M.^a Jose

13: ALAITZ Eizaguirre Duinat

Gurasoak: Martin eta M.^a Pilar

13: APOLINAR Espinda Berridi

Gurasoak: Apolinar eta Miren Usue

15: OLALIA Goikoetxea Nuñez

Gurasoak: Jose Luis eta M.^a Teresa

16: BENAT Vazquez Espino

Gurasoak: Antonio eta Ramona

16: Armando Ibañez Alonso, Valladolid-koa eta Rosa Maria Briz Ezeiza, Hondarribikoa.

16: Ignacio Joaquin Tristan Solis, Irungoa eta M.^a Isabel Anzisar Olazabal, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

APIRILA

29: Angela Icardo Arregi, 84 urte
San Gabriel Egoitza.

MAIATZA

3: Jose Sagarazu Olasagasti, 83 urte
Astigarraga-enea baserrikkoa.

7: Antonio Ezpona Eguia, 78 urte
Madalen Karrikakoa.

EZKONTZAK

APIRILA

14: Juan Ramón Altuna Errazkin, Honda-ribikoa eta Miren Edurne Zapirain Etxebeste, Errenterriakoa.

14: Jose Luis Arias Gonzalez, Irungoa eta M.^a Aranzazu De La Peña Hornas, Hondarribikoa.

KIROLAK

Ama Guadalupeko Ikastetxeko 8. mailako 15 mutiko "Saumur"-era (Hondarribitik 550 kilometrotara) joan ziren Maiatzaren 7an lau berebiletan eta bertan bi egun igaro zituzten. Ibilaldi hau, beurek egindako eskaintza baten ondorioz antolatuta zen, orain dela hiru hilabete han elkartu bait ginen 6 ikastetxetako mutilak, denak frantsesak, gu bakarrak kanpotarrak.


Beste bost taldeak hauek izan ziren: Saumur bertakoa: A.S.C. Bayard Saumur Sud - Coudray-Macouar - Doue La Fontaine - Vallat Angers - Longue.

Denen artean gure taldea gelditu zen irabazle eta mutiko guztiak oso pozik etorri ziren, han lortutako sari eta beste zenbait gauzarekin.

Arratsaldeko 4etan hasi ziren partiduak eta gaueko 11etan bukatu, esan beharrekoa da gauzak oso ondo antolatuta zeudela eta jende guztia oso pozik geratu zela.

Maiatzaren 8an, igandean, goizeko be-

AMA GUADALUPEKO IKASTETXETAKO HAURRAK "SAUMUR"-EN (FRANTZIAN)



deratzi t'erdietan hasi eta eguerdiko ordu-biak arte herri guztia ikusten ibili ginen, eta benetan herri zoragarria da, hango gazte-

luak, hango ibai garbia, bertako zaldiak eta ikusgarriena hango ardo goxua, Ackerman Laurence zenak sortutako upategietan.

Umeak eta Haundiak, joan ginen guztiak, binaka egon ginen bertako familetan jan eta lo eginez, ikusi genuenez oso jende jatorria eta edukatua dela esan behar dugu. Lehenengo Agintari den Jean Paul Hugot Alkate Jauna eta Futbol Taldeko Lehendakari den Jean Luk Jaunarengandik hasita, denak saiatu ziren jendeak ondo pasa zezen.

Datorren hilean beurek etorriko dira Hondarribia, Eskubaloiko talde bat eta Futboleko beste bat, eta hemen ere hangoaren moduko txapelketa txiki bat egingo dugu, pentatsen dugu hemengo jendea ere gutxienez hangoa bezain ongi portutakoa dela.

Argazki honetan agertzen direnak, Hondarribiko Ama Guadalupeko Ikastetxeko mutikoak eta bertako Bayard Saumur Sud taldea dira.

Pello Olazabal



ESKUBALOIATZ

Nik egiten dudana kirola eskubaloia da. Eskubaloiko atezaina naiz. Ite Hondarribiko kadete eskubaloiko jokalaria naiz. Astero bi entrenamendu daukagu, asteartean eta ostegunean. Odua arratsaldeko seietaatik zortzieta da.

Astearteko entrenamenduak ostegunekoak baino gogorragoak dira. Astearteetan ejerzio asko egiten dira eta baloi gutxi, baino hau neri ez zait axola zeren astearteetan ordu erdi edo hiru ordu laurden beranduago noa eta ez ditut ejerzio honiek egiten. Astearteko entrenamenduak, ostegunekoak hiru zatitan banatzen dira:

– Lehendabizi bi km. korrika, baina askotan ez ditugu 500 m. egiten zeren bide

xigor batetik sartzen gara, hau da tranpa egiten dugu gehienetan eta gainera oinez joaten gara.

– Bigarren atala, beroketel dagokie, hau da, gorpuztaren atalak baloiarekin jolasteko prestatu, hankak, besoak, gerriak e.a.

– Hirugarren eta azkenik, baloiarekin saioak, lehenbizi kontraatakeak banaka, atezainak baloiarekin jokalariori pase luzeak eta motxak emanez, jokalaria baloia hartu eta azkenik golera bota behar du, ondoren, bakoitzak bere postutik golera bota behar du eta atezainak gelditzen saiatu behar du. Hau egin eta duxetara goaz.

Osteguneko entrenamendura ongi joaten naiz, aldatu eta korri egiten dugu, ejerzio gutxi eta baloi asko. Atezaina izatea ere, piskat aspergarria da zeren beti baloia gelditzen saitu behar duzu eta hori ia ezi-nezkoa da zeren denek oso hurbiletik gole-

ra botatzen bait dute. Osteguneko entrenamenduak bukatu ondoren batzutan jubenilekin partidu bat jolastan dut.

Gipuzkoako Ligako partiduak larunbat arratsaldeetan jolastan ditugu normalki eta ligan ez goaz oso ongi, orain arte zazpi partidu jolastu ditugu eta hiru partidutan garai-le irten gara. Baina klasefikapen ligan lehenbizikoak izan ginen, hamalau partidutik hamaka irabazi, bi galduta eta bat enpatatu gertu. Goletan 115 sartu genituen eta 88 sartu zizkiguten. Media eginda partiduko 16,4 eta 12,5 irabazten genuen. Orain jolasten ari garen ligan, Euskadiko Txapelketa joateko lehenak izan behar dira eta noski, guk ia ezin dezakegu ezer egin baino laugarren postu hori mantentzeko borrokatzen ari gara.

Waika Gartzia
(Institutokoa)

KIROLAK

POLIKIROLDEGIA NOIZKO?

Nere ustéz Hondarribiak gazteekiko duen arazo garrantzitsuenetako bat kirola praktikatzeko leku falta da. Kirolarekiko hainbeste afizio dagoen herri batean gutxienez polikiroldegi bikain bat egon behar luke eta ez orain dagoena, gainera polikiroldegi hau oso gutxi erabiltzen da, beti pala partiduak bait daude, honela beste guztiak kalean utzi.

Honela saskibaloira jolasteko lekuen mantenaketa hobeto egotea eta ez gerta-

tzen dena, ez duela inork deus ere konpontzen.

Ukertzekoa da Udaletxeari asko kostatzen zaiola hilaibetero pare bat saski konpontzea baina hala ere hori egin beharra dago. Hau esaterakoan gazte guztiak nerekin daudela pentsatzen gelditzen naiz.

Xabier Amiano
(Institutokoa)



FUTBOLA

Lehenengo Maila Regionalean jokatzen duen Hondarribia Futbol Elkarteko taldea, denboraldi osoan lehenengoa egon bada ere, azkenean bigarren postuan geratu da eta gorako mailara igotzea lortu du.

Jokalari eta entrenatzaileen izenak hauek ditugu:

Entrenatzailea: Javier Vallejo Casado. Masajista: Francisco Olmedo Villacañas, Atezainak: Manuel Treku Utiel eta Iñigo Etxabe Gil. Defentsak: Aitor Iñiñiz Etxebeste, Jon Diez Manterola, Jose Garcia Erraez, Juan Antonio Goikoetxea Sorzabal eta Manuel Seisdedos Ortiz. Erdilariak: Tomas Olaiz Yarza, Santos Jauregi Alustiza, Iñigo San Miguel Larrañaga, Victor Barcenos Quintana, Jorge Muñoz Panplegia eta Luis Lopez Rekarte. Aurrelariak: Victor Hereza Madrid, Koldo Apalategi Iñiñiz, Jon Etxabe Gil, Manuel Bidaurreta Diez eta Francisco Festa Cayuel.

Noizpait lortu dugu hainbeste desiratutako maila horretara igotzea, lau urtez aritu gara gogor lanean horretarako, Javier Vallejo entrenatzailearen laguntzari ezker, beheragoko mailetak gazte talde batekin.



Bigarren Maila Regionalean jokatzen duen Hondarribia Futbol Elkarteko taldea bigarren geratu da denboraldi honetan eta honek ere goragoko mailara igotzea lortu du.

Hauek dira jokalarien eta entrenatzaileen izenak:

Entrenatzaileak: Javier Garmendia Etxaniz, Atezainak: Juan Maria Celiueta Muguruza eta Eugenio Olio Iriarte. Defentsak: Ignacio Lekuona Ercilla, Antonio Urtizberrea Gonzalez, Mikel Sorzabal Irigoien, Aitor Villaverde Paz eta Jose Mari Sanchez Aristei. Erdilariak: Francisco Guerrero Manso, Ignacio Estevez Leon, Francisco Gonzalez Cano, Juan Lara Arias, Jorge Bilbao Alberdi eta Alfonso Berges Angulo,



1. Regionaleko taldea 1987-88 denboraldian.



2. Regionaleko taldea 1987-88 denboraldian.

Aurrelariak: Ramon Vazquez Ezeizabarrena, Ignacio Oiarzabal Serrano, Emilio Vazquez Diaz, Jose Manuel Rubiales Cañestro, Jose Ignacio Gonzalez Gonzalez, Emilio Moran Santano, Jesus Maria San Miguel

Larrañaga, Iñigo Uranga Caballero eta Jose Ignacio Perez Sardon.

Guztioi gure txalorik beroenak aldzikari honetatik!!

UDALA

Apirilaren 28an, osteguna, bi pleno izateko ziren: lehenbizikoa, gai bakarrekoa, Pleno Berezia droga harropaketa zela eta, bigarrena, arrunta, ohizko udal gaiet buruzkoa. Bigarren hau, ordea, istiluk sortu zirela eta, ez zen egun horretan egiterik izan.

DROGA HONDARRIBIAN

Apirilaren 23an 1.000 kilotik gora haxis harropatu eta ekintza berean herriko sei lagun ere detenitu zituzten. Hau dela eta, bi mozio aurkeztu ziren 28ko Plenoan; bata HBk eta bigarrena beste lau partiduek, EA, EA, EE eta PSE-PSOE. Ertzaintzaren aipamena kenduz gero biak berdintsuak zirela eta, beste mozio berri bat berriatzi zuten talde guztiek elkar hartuta.

Mozio berri horretan sei puntu proposatzen ziren onarpenarako: 1. Udalak Auzitegiaren salaketa partikulara aurrera eramatea. 2. Horretarako legeagizun bat hautatzea, droga arazoetan ari diren taldeen artekoa. 3. Herriari gora-behera guztien berri ematea eta errudunen izenak jakinaraztea. 4. Arazoa erabat argitzea behar diren bidak jartzea. 5. Ertzaintza Hondarrribian lehenbailehen jartzea eta udaltzainak ere arduraz saiatzea drogaren aurka. 6. Udalak herriaren laguntza eskatzea Hondarribia drogaren paradisu bihurtu ez dadin.

EEK eta PSE-PSOE astentzioa egin zuten 1. eta 2. puntuetan, salaketa Udaltzainaren zeregina ez zelakoan, eta HBk 5.ean, bide polizialak efikazak ez direlakoan. Gainerako puntuak aho batez onartu zituzten talde guztiek.

MARIA JESUS LARRATEREN ATXILOKETA

Bigarren Plenoan hasi baino lehen HBko zinegotziek Maria Jesus Larrarteren atxilotaketa zela eta, premiazko mozio bat aurkeztu zuten Amnistiarren aldeko Gestoraren izenean.

Maria Jesus aurreko astelehenean, apirilak 25, detenitu zuten bere etxean, goizeko 4,30etan eta Antiguako komisaldegitik pasa ondoren Madrida eramane zuten lege antiterrorista ezarrita, beste zazpi gipuzkoarrek in batera.

Pleno bitarte horretan pankarta bat zabaltu zuten Aretxean "Maria Jesus etxera" eta "detenituak askatu" zioena. Bertan 30 bat pertsona zeuden, gazteak gehienak.

Mozioari ekin baino gaia urjentziakoa zen ala ez botatu zen eta, gehiengoaz, baietza erabaki zen. Ondoren mozioaren botazioa etorri zen. HBren mozioak lau puntu zuzkan: 1. Udalak atxilotaketa salatzea eta Maria Jesusen askatasuna eskatzea. 2. Udalak senideei laguntza morala eskaintzea. 3. Udalak senideei Madrilgo egoaldiaren gastuak ordaintzea. 4. Udalak lege antiterroristaren desusatzapena eskatzea.



Zumardia eta irioaren arteko zabalagune horretan aparkatzeko aukera izango dugu hemendik aurrera, egokitze lanak bukatu-
xeak bait daude.

Botazioa eginek HBko bost udalideak agertu ziren alde; baina gainerakoak zazpi kontra eta hiru astentzio zirelarik, onartu gabe gelditu zen mozioa. Hamar minutu ozta-ozta iraun zuen Pleno labur honek.

Etenaldi baten ondoren berriro bildu ziren udalideak ohizko Plenoari, eguneko hirugarrenari, ekiteko. Zerrendako lehen puntua irakurtzeko momentuan kanpora joana zen herriar multzoa berriro sartu zen oihuka eta txalo joki: "Maxuxa askatu", eta kontra botatu zuten zinegotziek "zuek faxistak zarete terroristak!" oihu eginez. Pleno egiteko giroa ez zegoenez, bertan behera moztu eta beste egun baterako gelditu zen.

EUSKALTEGIAREN OBRA BALDINTZAK ONARTUAK

Apirilaren 28an utzitako Plenoan maiatzaren 5ean bildu zen.

Lehen puntua izugarri luzea joan zen 11 akta atzeratu bait zeuden onartzeko. Ondo-

ko puntuetan lege auzi bi zeuden, udaltzainak patatak, izozkiak eta abar saltzeko baldintzen onarpena, eta ondoren hiritzaintza gai batzuk.

Horien arteko bat Harresilandako etxea euskaltegi bihurtzeko proiektua eta lan baldintzak ziren. HBko ordezkariak etxe hori Amuitzak, Euskal Herrian Euskara, eta AEKri zor zitzaizela defenditu zuten. Azkenean, ordea, beste taldeen botuek onartu zen euskaltegia egiteko proiektua, baina gela banaketa HABE legeak eskatzen dituen arauak egokitzeko baldintzarekin. Obraren baldintzen artean lanak hasi eta handik bost hilabetera bukatzea eskatzen da.

"BATEGINIK" KANPAINARI LAGUNTZA

Gobernu Batzordeak "Bateginik" Kanpainari 450.000 pezetako laguntza ematea erabaki zuen. Kopuru hori zen Hondarribiar zegoikioa, Kanpainaren antolatzaileek erabaki zuten baremoren arabera. Horretaz aparte Udalak bere gain hartu ditu megafonia antolatzea eta beste zenbait gastu kanpainari laguntzeko.

"BORDARI" ETA "SATARKA" SARIK

Urtero bezala aurten ere Udalak "Bordari" eta "Satarka" ipuin eta olerki sariketak antolatzea erabaki du. Bosgarren lehiaketa hau Hondarribiko idazleentzat bakarrak izango da eta bi maila izango ditu adinaren arabera: bata 18 urte gorakoentzat eta bestea behekoentzat. Lau sarri egongo dira literatur jenero bakoitzeko: 18 urte gorakoentzat 80.000 eta 30.000 pezetako sariak, eta behekoentzat 35.000 eta 15.000 pezetakoak. Baldintza orriak, Gipuzkoako Kutxak argitaratuta, hil honetan zabalduko dira herri ikastetxeetan. Bestalde, lanak aurkezteko epea urriaren 31era arte atzeratu da aurten. Horrela, kurtso honen bukatzean eta hurrengoaren hasieran irakasleek ikasleak girotu eta lanak eragiteko bera izango dute.

J. A. Letamendia

